



**EBAZPENA, 2023ko otsailaren 23koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe dauden Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza-Eskola ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta Irakasleen, Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionarioen arteko 2022/2023ko, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitaratzen da.**

Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak (2022ko urriaren 14koa EHAA), Katedradunen, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionario irakasleen artean 2022/2023ko ikasturtean, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeitaseigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, eta parte hartzen duen pertsonalari emandako behin betiko puntuazioak kontuan hartuta, behin-behineko destinoak esleitu dira.

Horregatik, honako hau

#### **EBATZI DUT:**

**Lehenengoa.-** Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza-Eskola ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta Irakasleen, Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionarioen arteko 2022/2023ko, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitara ematea.

**Bigarrena.-** Erreklamazioak aurkezteko eta destinoei uko egiteko epea irekitzea, 2023ko otsailaren 27tik martxoaren 3ra, bi egun horiek barne.

**Hirugarrena.-** Erreklamazioa aurkeztu edo uko egitea ondorengo Interneteko helbide honen bidez egin behar da, adierazitako epean <https://hezigunea.euskadi.eus>.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 23an